

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DEPARTAMENTO DE EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Foru Gobernu Kontseiluaren 434/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea Arriolako Administrazio Batzarrak ekainaren 9ko 242/2020 Erabakiaren aurka aurkeztutako aurretiazko errekerimenduaren baiespenari**

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 25eko 405/2019 Erabakiaren bidez, onetsi zen toki erakundeei Obra Txikiak Egiteko 2020ko Programako laguntzak emateko deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 9ko 242/2020 Erabakiaren bidez, ebatzi zen Obra Txikiak Egiteko 2020ko Programaren deialdia, eta 18.364,22 euroko zenbatekoa eman zitzaion Arriolako Administrazio Batzarrak aurkeztutako eskaerari, "Sagarretik Palakondorako landabidea konpontzea. Kodea: 009-049-101" obra egiteko.

2020ko ekainaren 17ko datadun sarrera erregistroarekin, Arriolako Administrazio Batzarrak idazki bat aurkeztu zuen, jakinarazteko emandako dirulaguntza exekuzio materialaren guztizko aurrekontuaren gainean kalkulatu dela, eta ez aurkeztutako aurrekontu osoaren gainean (34.903,18 euro) eta, hortaz, espedientea berrikusteko eskatu zuen.

Idazki hori, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurreko errekerimendutzat hartu behar da.

Lurralde Orekaren Sailaren Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak, 2020ko uztailaren 9an, jakinarazi zuen ezen, dagokion espedientea berrikusi eta gero, egiaztatu dela huts hori bazegoela, eta horren ondorioz, aurrekontu lagungarria 34.903,18 eurokoa dela eta dirulaguntza aplikagarria 22.720,86 eurokoa; hortaz, hasieran emandako dirulaguntza baino gehiago egokitzen zaio; hain zuzen ere, 4.356,64 euro gehiago.

Obra txikiak egiteko laguntza programa norgehiagoka bidez ebazten da, hala ezartzen baitu 2. artikuluan auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako toki erakundeetan obra txikiak egiteko laguntza programak arautzen dituen 21/2013 Foru Arauak.

21/2013 Foru Arauak Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuari esleitzen dizkio prozeduraren instrukzio organoaren eginkizunak.

Egindako berrikuspenak berekin dakar aldatzea ekainaren 9ko 242/2020 Erabakiaren bidez onetsitako ebazpena eman zuen instrukzio organoaren proposamena; hain zuzen, emandako dirulaguntzaren zenbatekoari 4.356,64 euro gehitzea.

Aipatutako aldaketak ez die eragiten 242/2020 Erabakiaren bidez egin ziren gainerako emakidei.

Egiaztatu da Lurralde Orekaren Saileko Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuak egindako txostenaren arabera, aurrekontu erabilgarritasuna dagoela.

Egiaztatu da ez direla gainditzen obra txikiak egiteko laguntzen 2020ko deialdia onetsi zuen Gobernu Kontseiluaren 405/2019 Erabakiaren 2.2. artikuluan aipatutako mugak.

Proposatzen da Arriolako Administrazio Batzarrari 4.356,64 euroko dirulaguntza osagarria ematea aurkeztu duen 34.903,18 euroko aurrekonturako, "Sagarretik Palakondorako landabidea konpontzea. Kodea: 009-049-101" obra egiteko. Proposamen hori kide anitzeko organoari helarazi zaio, prozedura ebatz dezan.

Era berean, proposatzen da aipatutako toki erakundeari 2020ko abenduaren 31ra arteko epea ematea aipatutako obra egiteko eta obra horien justifikazio agiriak aurkezteko.

Kide anitzeko organoaren kasuan kasuko akta 2020ko uztailaren 9an sinatu zen.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### ERABAKIA

Lehenengoa. Onespena ematea Arriolako Administrazio Batzarrak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 9ko 242/2020 Erabakiaren aurka aurkeztutako aurretiazko errekerimenduari, eta 4.356,64 euroko gehikuntza ematea Obra Txikiak Egikaritzeko 2020 Programaren kontura emandako hasierako dirulaguntzari:

ESPEDIENTEA	IFZ	OBRA	DIRULAGUNTZA
20/2026	P-100.210-D	Sagarretik Palakondorako landabidea konpontzea. Kodea: 009-049-101	4.356,64

Bigarrena. Zenbateko hori esleitzea Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuko "10.2.03.16.01.768.00.01 Obra txikiak egitea" partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-13/000.20.1.20).

Hirugarrena. Aipatutako toki erakundeari 2020ko abenduaren 31ra arteko epea ematea aipatutako obra egiteko.

Laugarrena. Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea beharrezkoak diren egintza eta xedapen guztiak emateko lagundutako obraren izapideez eta gauzatzeaz eta gehikuntzez eta murrizketez, bai eta izan litezkeen itzulketak eskatu eta baliogabetzeko ere.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 29an

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**